El proceso contó con todos los tipos de agentes objetivo, siendo la gran mayoría personas vecinas de Elorrio (68%). Le siguen las personas que trabajan o estudian en Elorrio (26%) y en menor representación el tejido asociativo (12%). Cabe señalar que se puede pertenecer a más de un tipo de agente (vivir y trabajar en el municipio). Con significativa menor representación, de esperar, están las personas visitantes (2%), personal técnico municipal (2%), representantes políticos (1%) y pertenecientes al Consejo Asesor de Planeamiento (1%).




**Parte-hartzaileak, tokiaren arabera**

Hamar parte-hartzailetik bederatzi Elorrion bizi dira, eta gainerakoak beste udalerri batzuetan, Durangon bereziki.

Guztizkoaren bi herenak hirigunean bizi dira. Gainerako auzoetako partaidetza oso banatuta dago, baina askoz ere proportzio txikiagoan, San Agustinen % 4 ez du gainditzen; eta ondoren, Mendraka eta Iguria daude ( % 3). Gainerakoak, % 3tik beherako ehunekoekin, beste auzoetan banatzen da.

**Participantes por lugar**

Nueve de cada diez personas participantes vive en Elorrio y el resto, en otros municipios, destacando Durango.

El centro urbano representa dos tercios del total y la participación en el resto de barrios está muy repartida, pero en mucha menor proporción, no superando el 4% de San Agustín, seguido de Mendraka e Iguria (3%). El resto, con porcentajes por debajo del 3%, se reparte por los diferentes barrios restantes.



**Parte-hartzaileak, hizkuntzaren arabera**

Parte-hartzaile gehienek euskaraz egin zuten, lau lagunetik hiruk euskaraz parte hartu baitzuten.

Parte hartzeko mekanismoaren arabera, desberdintasun batzuk ikusten dira. Behaketetan (ibilaldiak) ia parte-hartzaile guztiek euskaraz parte hartu zuten, eta paperezko galdetegiei erantzun zieten guztiek ( % 80k 65 urtetik gorakoak) gaztelaniaz.

Datuek ez dituzte kontuan hartzen jendaurreko hitzaldiko eta elkarrizketetako parte-hartzailak, elebidunak izan baitziren.

**Participantes por idioma de participación**

El euskera fue el idioma más utilizado para participar, ya que tres de cada cuatro personas participaron en euskera.

Por mecanismo, se observan algunas diferencias. En las observaciones (paseos) prácticamente la totalidad de asistentes participó en euskera, mientras que todas las personas que contestaron los cuestionarios en papel (el 80% mayores de 65 años) lo hicieron en castellano.

Los datos no tienen en cuenta el total de participantes de la charla pública ni las entrevistas, las cuales fueron bilingües.



Elorrioko udala

HAPpgu

# 4. EMAITZAK ETA HAPO-REN 1. FASEAN EGINDAKO EKARPENAK

Jarraian, hainbat bideren bidez jasotako ekarpenen laburpena jasotzen da, parte-hartzea egituratu zuten 9 gaiei jarraituz. Gai bakoitzak honako hau jasotzen du:

- Parte hartzeko mekanismo guztietatik (presentzialak eta digitalak) bildutako emaitzen eta ekarpenen laburpen bat.
- Emaitzak mekanismoaren arabera konparazio-taula bat.
- Jasotako emaitzak eta ekarpenak, partaidetza-mekanismoaren arabera (online inkesta, elkarrizketak eta behaketak).
- Online inkestan lortutako elkarlaneko mapa geoerreferentziatuak.

Mekanismoen araberako konparazio-taula irakurtzeko informazio-oharra:

Hiru mekanismo nagusien arteko konparazio-taulak (digitala, paperezko galdetegiak eta elkarrizketak) hiru bideen baturaren batez besteko haztatua erakusten du, baita bide bakoitzaren zenbakizko edo ehunekozko balorazioa ere. Zenbakizko puntuazioa, galderaren arabera, adostasun-maila altuenaren edo balorazio altuenaren (5) eta desadostasun edo balorazio baxuena duenaren (1) artekoa da.

# 4. RESULTADOS Y APORTACIONES A LA FASE 1 DEL PGOU

A continuación, se recoge la síntesis de las aportaciones recogidas a través de los diferentes canales, siguiendo los 9 temas que estructuraron la participación. Cada tema recoge lo siguiente:

- Un breve resumen de los resultados y aportaciones recogidas por el conjunto de mecanismos (presenciales y digitales).
- Una tabla comparativa de los resultados por mecanismo.
- Los resultados y aportaciones recogidas por mecanismo de participación (encuesta online, entrevistas y observaciones).
- Los mapas colaborativos georreferenciados obtenidos de la encuesta online.

Nota informativa sobre la lectura de la tabla comparativa entre mecanismos:

La tabla comparativa entre los tres mecanismos principales (digital, cuestionarios en papel y entrevistas) muestra la media ponderada de la suma de los tres canales, así como la valoración numérica o porcentual de cada canal. La puntuación numérica oscila, según las preguntas, entre el grado de acuerdo más elevado (5) y el de mayor desacuerdo (1).

**P.DIG:** partaidetza digitala / participación digital
**PAP. G. / C.PAP:** paperezko galdetegiak / cuestionarios en papel
**ELK / ENTR:** elkarrizketatutako pertsonak / personas entrevistadas

| | | |
|---|---|---|
| | (1-1,4) | 1 = totalmente en desacuerdo |
| | (1,5-2,4) | 2 = en desacuerdo |
| | (2,5-3,4) | 3 = indiferente / a medias |
| | (3,5-4,4) | 4 = de acuerdo |
| | (4,5-5) | 5= totalmente de acuerdo |

Taulen legenda / Leyenda de las tablas

Jatorrizko ekarpenen dokumentuak

Txosten hau, jasotako jatorrizko ekarpenekin osatu nahi izanez gero, honako dokumentu hauek kontsulta daitezke:

- **F1-D-1-INK01 - Online inkesta:** adostasun-barrak beren batez bestekoarekin, gai bakoitzaren ekarpen gehigarriak eta mapa geoerreferentziatuen iruzkinak.
- **F1-D-2-SEL01-11 + F1-D-3-TEL101-03 – Elkarrizketa sakonak eta taldekoak:** aktak, gaien araberako ekarpenekin.
- **F1-D-4-BEH01 + F1-D-5-BEH02- Landa-eremuko eta hiri-eremuko behaketak**: ibilaldien aktak.

Documentos con aportaciones originales

En caso de querer completar el informe con las aportaciones originales recogidas, se pueden consultar los siguientes documentos:

- **F1-D-1-INK01 - Encuesta online:** barras de consenso con su media, aportaciones adicionales de cada tema y comentarios de los mapas georreferenciados.
- **F1-D-2-SEL01-11 + F1-D-3-TEL101-03 – Entrevistas en profundidad y grupales:** actas con aportaciones por temas.
- **F1-D-4-BEH01 + F1-D-5-BEH02- Observaciones en el ámbito rural y en el urbano:** actas de los paseos.

### HAPOrako gaien artean sortutako interesa

HAPO berrirako, bederatzi gaiek lehentasuna izan arren, partaidetza handiena izan zutenak ingurune naturala, mugikortasuna eta etxebizitza izan ziren.

### Interés generado entre los temas del PGOU

Si bien los nueve temas son prioritarios para el nuevo PGOU, los que contaron con mayor participación y/o prioridad para quienes participaron fueron el medio natural, la movilidad y la vivienda.



## 4.1 01. Ingurune naturala

Ingurune naturala da parte-hartzaileen artean interes eta adostasun handiena sortu duen gaia.

Oro har, emaitzek erakusten dute naturguneak, lurzoru naturala eta nekazaritzako eta basogintzako eremuak eta haien biodibertsitatea zaintzeko eta babesteko borondatea. Aipatzekoa da, gai horiei dagokienez, elkarrizketetan edo paperezko galdetegietan parte hartu zutenek asmo handiagoa adierazi zutela babes horren alde.

Ibaien artifizializazio-mailari dagokionez, ez dago adostasun argirik, iritzi desberdinak jaso baitziren.

## 4.1 01. Medio natural

Medio natural es el tema que más interés y consenso genera entre las personas participantes.

En general, los resultados muestran la voluntad de preservar y proteger los espacios naturales, el suelo natural, y las zonas agroforestales y su biodiversidad. Cabe señalar que, en relación con estas cuestiones, las personas que participaron en las entrevistas o a través de los cuestionarios en papel se mostraron más ambiciosas a favor de dicha protección.

En cuanto al grado de artificialización de los ríos no hay un consenso claro, ya que se recogieron disparidad de opiniones.

| 1 **INGURUNE NATURALA** MEDIO NATURAL | **BATEZ BESTEKOA MEDIA** | **P. DIG.** | **PAP. G** C. PAP. | **ELK.** ENTR. |
|---|---|---|---|---|
| **Zure ustez, HAPO berriak...?**<br>¿Crees que el nuevo PGOU debería...? | **GUZTIRA/TOTAL 174** | 154 | 7 | 13 |
| 1 **Gune naturalak zaindu eta babestu beharko lituzke.**<br>Preservar y proteger espacios naturales. | 4.3 | 4.2 | 5.0 | 4.6 |
| 2 **Lurzoru naturala babestu beharko luke artifizialduta dagoen lurzorua optimizatuz eta soilik estrategikoa dire jarduketak sailkatuz.**<br>Proteger el suelo natural, optimizando suelo artificializado y solo clasificando actuaciones estratégicas. | 4.0 | 3.9 | 4.3 | 5.0 |
| 3 **Nekazaritza eta basogintzako eremuak mantendu eta biodibertsiztatea kontserbatu beharko luke.**<br>Mantener las zonas agroforestales y conservar la biodiversidad. | 4.3 | 4.2 | 5.0 | 5.0 |
| 4 **Zure ustez, ibaiak oso artifizializatuta daude?**<br>¿Consideras que los ríos están muy artificializados? | 3.3 | 3.3 | 3.4 | 3.0 |

### 4.1.1 Ekarpenak partaidetza mekanismoaren arabera

Zehazki, digitalki parte hartu zutenen gehienek uste dute Elorriok zaindu eta babestu beharreko gune naturalak dituela ( % 89) eta nekazaritzako eta basogintzako eremuak eta intereseko habitatak mantendu behar direla ( % 81). Horien ondoren, %73ren iritziz, lurzoru nat

### 4.1.1 Aportaciones por mecanismo de participación

En concreto, la mayor parte de quienes participaron vía digital consideró que Elorrio tiene espacios naturales de interés a preservar y proteger (89%) y que se deben mantener las zonas agroforestales y los hábitats de interés (81%). Seguido de estas, el 73% consideró que se debe

urala babestu egin behar da, artifizializatut ako lurzorua optimizatuz. Nabarmentzeko a da 30 urtetik beheitikoek eta 65 urtetik g orakoek anbizio handiagoa erakutsi dutela ingurune naturala mantentzearen eta bab estearen alde. Bestalde, ibaien artifizializazio-mailaren inguruan jasotako iritzi desberdinei dagokienez, nabarmentzekoa da % 43k oso artifizializatutzat jotzen dituela. Gainera, industriak basoetan eta lurretan nahiz ibaietan duen eragina arintzearen garrantzia aipatu zen, bai eta horiek mantentzearen garrantzia ere.

proteger el suelo natural optimizando el suelo ya artificializado. Cabe destacar que las personas menores de 30 y las mayores de 65 años se mostraron más ambiciosas en mantener y proteger el medio natural. Por otro lado, en cuanto a la disparidad de opiniones recogida en torno al grado de artificialización de los ríos, destaca que el 43% los consideró muy artificializados. Además, se apuntó la importancia de mitigar el impacto de la industria, tanto en los bosques y tierras como en los ríos, junto con el mantenimiento de los mismos.

Gainera, **elkarrizketetan,** kutsatutako lurzoruekiko kezka nabarmendu zuten, lurzoru horiek deskontaminatu arte benetako alternatiba ezin direlako izan. Lurzoru urbanizaezinerako araudi eta plangintza eza ere aipatu ziren. Landa-auzoetatik ekonomia- eta bizitegi-jarduera kontuan hartuko dituzten neurriak eskatu ziren, baserriak hiltzea saihesteko, eta balio ekologiko handiko lurrak (abeltzaintzarako eta/nekazaritzarako) babesteko, eta ez erabilera industrialetarako. Ildo beretik, oso garrantzitsutzat jo zen bide naturalak mantentzea eta galdu diren horiek berreskuratzea. Bestalde, kezka dago ibaien egoeraren inguruan, mantentze eskasa, zikinkeria eta uraren kalitatea dela eta. Era berean, zenbait proposamen jaso ziren, hala nola: ibilbide natural irisgarriak identifikatzea eta bertako espezieen edo belardien udal-landaketetarako lurzorua erostea.

Además, en las **entrevistas**, destacaron la preocupación por los suelos contaminados, por no poder ser alternativa real hasta que se descontaminen, y la falta de normativa y planificación para el suelo no urbanizable. Desde los barrios rurales se demandaron medidas que contemplen la actividad económica y residencial, evitando que los caseríos mueran, y preservar los terrenos de alto valor ecológico (para ganadería y/ agricultura), pero no destinarlos a usos industriales. En la misma línea, se consideró muy importante mantener los caminos naturales y recuperar los que se han perdido. Por otro lado, preocupa el estado de los ríos, por el bajo mantenimiento, la suciedad y la calidad del agua. También, se recogieron algunas propuestas como: identificar itinerarios naturales accesibles y comprar suelo para plantaciones municipales de especies autóctonas o pradera.

Azkenik, landa-eremuko behaketan, garrantzitsutzat jo zen abeltzaintza, nekazaritza eta basogintzako ustiategiak antolatzea, lantzen ez diren lurrak baitaude.

Por último, en la observación del ámbito rural se consideró importante ordenar suelos de ganadería, agricultura y explotaciones forestales, ya que hay terrenos que no se trabajan.

### 4.1.2 Mapa kolaboratiboa

### 4.1.1 Mapa colaborativo




On line inkestako mapan, babestu beharreko naturguneak adierazten dituzten puntu ugari bildu ziren, bai hiri-ingurunean, bai landa-auzoetan. Hirigunea inguratzen duen eraztun berdea eta auzoen inguruko zenbait baso-eremu nabarmentzen dira.

En el mapa extraído de la encuesta online se recogieron numerosos puntos donde se señalan espacios naturales a proteger, tanto en el entorno urbano como en los barrios rurales. Destaca el anillo verde que rodea el casco urbano y algunas zonas de bosque en los entornos de los barrios.

Hala ere, hobetu beharreko ibaiaren eremuak batez ere, hirigunean biltzen dira.

Sin embargo, las zonas de cauce del río a mejorar se concentran principalmente en la zona urbana.

Gainerako puntuek, grisek, ez dute inolako kategoriarik adierazten eta gehienak hirigunean daude.

El resto de puntos, los grises, no señalan ninguna categoría y se sitúan mayoritariamente en el casco urbano.

## 4.2 02. Mugikortasuna

Mugikortasuna da parte-hartzaileen artean interes handiena sortzen duen gaietako bat.

Gai honetan, online inkestako lehenengo galderak herritarren esperientziara eta ohituretara bideratuta daude. Horregatik, emaitzek parte-hartzaile guztien praktikak eta udalerriaren egungo egoerari buruz duten ikuspegia jasotzen dituzte. Hala, emaitzen arabera, kanpora mugitzeko modu nagusia autoa da, eta barnean mugitzeko, oinez. Nabarmentzekoa da beste mugikortasun-modu batzuk gutxi erabiltzen direla, hala nola bizikleta edo patinetea. Garraio publikoaren alternatibak eskatu dira eta bizikleta bidezko mugikortasuna hobetzea.

Hiri-mugikortasunaren estrategiari dagokionez, adostasun-maila handia dago oinezkoen mugikortasuna lehenesteko, gainerako garraiobideen aldean. Hala ere, nahiz eta, oro har, zirkulazioa ez den arazo bat, iritzi desberdinak daude Elorrioko hirigunetik igarotzen diren ibilgailuak murriztu beharko liratekeen ala ez erabakitzeko.

## 4.2 02. Movilidad

La Movilidad es uno de los temas que más interés genera entre las personas participantes.

En este tema, las primeras preguntas planteadas en la encuesta digital están enfocadas desde la experiencia y hábitos de la ciudadanía. Por ello, los resultados obtenidos recogen las prácticas del conjunto de participantes y su visión de la situación actual del municipio. De esta manera, según los resultados, el principal modo de movilidad externa es el coche e interna, a pie. Destaca la baja utilización de otros modos de movilidad como la bicicleta o el patinete. Así, se demandan alternativas de transporte público y mejorar la movilidad ciclable.

En relación a la estrategia de movilidad urbana, se recoge un alto grado de acuerdo sobre primar la movilidad peatonal frente al resto de modos. No obstante, a pesar de que en general no se considera que el tráfico sea un problema, hay disparidad de opiniones sobre si se debería reducir o no los vehículos que pasan por el centro de Elorrio.

| 2 MUGIKORTASUNA MOVILIDAD | BATEZ BESTEKOA MEDIA | P. DIG. | PAP. G C. PAP. | ELK. ENTR. |
|---|---|---|---|---|
| Zure ustez, HAPO berriak...? ¿Crees que el nuevo PGOU debería...? | GUZTIRA/TOTAL 169 | 149 | 7 | 13 |
| 1 **Lehentasuna eman beharko lioke oinezkoen mugikortasunari, gainkerakoen aldean.** Primar la movilidad peatonal frente al resto de modos. | 4.0 | 4.0 | 4.7 | 4.4 |
| 2 **Elorrioko erdigunetik igarotzen den trafikoa murriztu beharko luke.** Reducir el tráfico de vehículos que pasan por el centro de Elorrio. | 3.0 | | 4.3 | 2.3 |
| 3 **Zure ustez, Elorrioko erdigunetik edo zure auzotik igarotzen diren ibilgailuen trafikoa arazotsua dela?** ¿Consideras que el tráfico de vehículos que pasan por el centro de Elorrio o tu barrio es problemático? | 2.4 | 2.4 | 4.0 | 1.5 |

### 4.2.1 Ekarpenak partaidetza mekanismoaren arabera

Zehazki, beste udalerri batzuekiko kanpo-mugikortasunari dagokionez, **digitalki** parte hartu zutenek gehien erabiltzen duten garraiobidea autoa da (%68). Horren ondoren, neurri txikiagoan bada ere, %14 oinez mugitzen da (gehienak 18 urtetik beherakoak) eta %12 autobusez (beste batzuetan aipatua). Horregatik, alternatiba iraunkorrak eskatu ziren, hala nola bizikleta bidezko mugikortasuna eta garraio publikoa hobetzea. Udalerri barruan mugitzeko, berriz, bost pertsonatik lauk oinez egiten dute (% 79). Neurri txikiagoan, %12 autoz mugitzen da, eta beste baliabideak, patinetea eta bizikleta, oso gutxi erabiltzen dira, bai Elorrion, bai beste herri batzuetara joateko.

Oinezkoen mugikortasunari dagokionez, parte hartu zutenen %71k garrantzitsutzat jo zuen HAPO berriak mugikortasun modu honi lehentasuna ematea, eta %25ek, berriz, ez du horri buruzko iritzirik eman.

Elorrioko erdialdean edo auzoetan ibilgailuen trafikoari dagokionez,% 57k uste du ez dagoela arazorik. Hala ere, %21ek uste du arazoak daudela Elorrio osoan, %15ek erdian bakarrik eta %6k auzoetan bakarrik.

Auzo-taxia zerbitzua 2017an jarri zen martxan, eta %60k ezagutzen du, baina ez du erabiltzen ez duelako behar edo autoa erabiltzen duelako. Nabarmentzekoa da parte-hartzaileen %34k ez dutela zerbitzua ezagutzen. Alde batetik, erabiltzen dutenek lanera, osasun-zentrora, aisialdira eta erosketak egitera joateko erabiltzen dute. . Beste erabilera-arrazoi batzuk aipatu zituen % 69k, behar ez duela aipatzen zuten, eta pertsona batek institutura joateko esan zuen. Bestalde, ezagutzen dutenek, baina erabili ez, oro har, esaten

### 4.2.1 Aportaciones por mecanismo de participación

En concreto, en cuanto a la movilidad externa con otros municipios, el medio de transporte más utilizado por quienes participaron **digitalmente** es el coche (68%). Seguido de este, aunque en menor medida, el 14% se desplaza a pie (la mayoría menores de 18 años) y el 12% en autobús (señalado en otros). Por ello, se demandaron alternativas sostenibles, como la mejora de la movilidad en bicicleta y del transporte público. En cambio, para moverse dentro del municipio, cuatro de cada cinco personas lo hacen a pie (79%). En menor medida, el 12% lo hace en coche y los otros medios, el patinete y la bicicleta, se utilizan muy poco, tanto dentro de Elorrio como para ir a otros municipios.

En relación con la movilidad peatonal, el 71% de quienes participaron consideraron importante que el nuevo PGOU la priorice, mientras que el 25% no se posiciona respecto a esta cuestión.

Sobre el tráfico de vehículos en el centro de Elorrio o en los barrios, el 57% considera que no hay problemas. Sin embargo, el 21% cree que hay problemas en todo Elorrio, el 15% solo en el centro, y el 6% solo en sus barrios.

En relación con el servicio de auzo-taxia puesto en marcha en 2017, el 60% lo conoce, pero no lo usa porque no lo necesita o porque utiliza el coche. Cabe destacar que el 34% de quienes participaron no conocen este servicio. Por un lado, los que sí lo utilizan, lo hacen sobre todo para ir al trabajo, al centro de salud, para el tiempo libre y para hacer compras en el centro. El 69% que señaló otros motivos, estos fueron porque no lo necesitan, mientras que una persona

dute ez dutela behar hirigunean bizi direlako edo autoa edo Bizkaibus erabiltzen dutelako.

apuntó que para ir al instituto. Por otro lado, las personas que lo conocen, pero no lo utilizan, en general apuntan que es porque no lo necesitan por vivir en el centro, utilizar coche o Bizkaibus.

Gainera, **elkarrizketetan,** alde batetik, landa-eremuarekin eta, bestetik, hiri-eremuarekin lotutako gaiak aipatu ziren. Lehenengoari dagokionez, auzoak lotzen dituzten landa-bideak mantentzearen eta nekazaritzako ibilgailuekiko loturak egokitzearen garrantzia azpimarratu zen (gaur egun herria zeharkatzen dute). **Landa-eremuko behaketan** ere gai horiek nabarmendu ziren, eta esan zen lehen auzo gisa mantentzen zirela, baina orain Udalaren eta auzolanaren artean egin beharko litzatekeela.

Además, en las **entrevistas**, se señalaron por un lado cuestiones relacionadas con el ámbito rural y otras, con el urbano. Sobre el primero, destacó la importancia de mantener los caminos rurales que conectan los barrios y adaptar las conexiones a los vehículos agrícolas (actualmente cruzan el pueblo). En la **observación en el ámbito rural** también se destacaron estas cuestiones y se comentó que el mantenimiento de los mismos antes se hacía como actividad de barrio, pero ahora debería hacerse entre el Ayuntamiento y auzolana.

**Hiri-eremuari** dagokionez, bai **elkarrizketetan**, bai **hiri-eremuko behaketan,** herrirako sarbide batzuetako kamioi-trafikoaren arazoak konpontzeko beharra aipatu zen, batez ere industrialdetik hurbil (Betsaide). Bizikletentzako ibilbide seguruak bermatzea oso garrantzitsua dela ere jaso zen, dagoeneko diseinatuta dauden mugikortasun-planak berreskuratzeko aukera azpimarratuz.

Sobre el **ámbito urbano**, tanto en las **entrevistas** como en la **observación urbana** se señaló la preocupación por resolver las problemáticas de tráfico de camiones en algunos puntos de accesos al pueblo, sobre todo cerca de la zona industrial (Betsaide), y la importancia de garantizar itinerarios ciclables seguros, señalando la posibilidad de recuperar planes de movilidad ya diseñados,

Azkenik, elkarrizketetan zein behaketetan, proposamen batzuk jaso ziren, hala nola: San Eloyko lotura zubitik egitea, hiriguneko kanpoko eraztunean bidegorria egitea, disuasio-aparkaleku bat egitea, erdigunean autoak murrizteko disuasio-aparkalekua egitea eta eskolako bideak hobetzea. Azken horiei dagokienez, Goieta kaleko kalitatea eta bide-segurtasuna mantentzearen garrantzia nabarmendu zen (trafikoa handitzeak kezkatzen du), eta ikastolaren ingurua baketzearen garrantzia.

Por último, tanto en las entrevistas como en las observaciones se recogieron algunas propuestas como: llevar a cabo la conexión en San Eloy utilizando el puente, habilitar un carril bici en el anillo exterior del casco urbano, hacer un aparcamiento disuasorio para reducir los coches en el centro y mejorar los caminos escolares. En relación a estos últimos, se destacó la importancia de mantener la calidad y seguridad vial de Goieta kalea (preocupa que se aumente el tráfico), y la

importancia de pacificar el entorno de la ikastola.

### 4.2.2 Mapa kolaboratiboa

### 4.2.2 Mapa colaborativo




Mugikortasun-mapan hainbat puntu bildu ziren, hala nola: oinezkoen mugikortasuna hobetzeko (batez ere Argiñetarako bidegurutzean) eta mugikortasun mota guztiak (oinezkoena, bizikletena, garraio publikoarena, ibilgailu pribatuarena) hobetzeko beharra duten tokiak, horien artean: Betsaide eta San Pio kalea.

Bestalde, aparkatzeko beharra duten puntu gutxi batzuk aipatu ziren, San Juan kalea eta Labakua kalea nabarmenduz.

El mapa de movilidad recogió numerosos puntos donde se necesita mejorar la movilidad peatonal (sobre todo en el cruce hacia Argiñeta) y lugares donde se concentra la necesidad de mejora de todos los tipos de movilidad (peatonal, en bicicleta, transporte público, vehículo privado) como Betsaide y San Pio kalea.

Por otro lado, se señalaron pocos puntos con necesidad de aparcamiento, destacando San Juan kalea y Labakua kalea.

## 4.3 03. Espazio publikoa

## 4.3 03. Espacio público

Espazio publikoaren gaiak interes ertaina sortu zuen parte hartu zutenen artean.

El tema de espacio público genera un interés medio entre quienes participaron.

Mekanismo guztien batez bestekoak eta parte-hartze digitalak udalerriko espazio publikoak, handiak zein hurbilekoak, handitzeko borondatea dagoela erakusten duten arren, adostasun-maila ez da oso handia. Izan ere, gainerako kanaletan iritziak desberdinak dira, edo are kontrajarriak ere, elkarrizketetan adibidez. Elkarrizketatutako pertsonek uste dute ez direla beharrezkoak espazio publiko gehiago; izan ere, beren kezka ez da espazioen kopuruan oinarritzen, baizik eta horien kalitateak eta mantentzeak kezkatzen ditu, hobetu daitezkeela uste baitute.

A pesar de que la media de todos los mecanismos y la participación digital muestran una voluntad de incrementar los espacios públicos del municipio, tanto los grandes como los de proximidad, el grado de acuerdo no es muy alto. De hecho, en el resto de canales las opiniones son distintas, o incluso opuestas, como en el caso de las entrevistas. Las personas entrevistadas consideran innecesario incrementarlos, ya que su preocupación no se centra en la cantidad de espacios, que la consideran suficiente, sino que les preocupa la calidad y el mantenimiento de los mismos, que consideran mejorable.

Egungo espazio publikoen beharrei dagokienez, landaredia, argiztapena eta hiri-altzariak nabarmentzen dira.

Respecto a las necesidades de los espacios públicos actuales, destacan la vegetación, la iluminación y el mobiliario urbano.

| | 3 ESPAZIO PUBLIKOA ESPACIO PÚBLICO | BATEZ BESTEKOA MEDIA | P. DIG. | PAP. G C. PAP. | ELK. ENTR. |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zure ustez, HAPO berriak...? ¿Crees que el nuevo PGOU debería...? | GUZTIRA/TOTAL 131 | 117 | 7 | 7 |
| 1 | **Parke handiak edo berdeguneak handitu beharko lituzke.** Incrementar los grandes parques o espacios verdes. | 3.7 | 3.8 | 3.3 | 2.5 |
| 2 | **Hurbileko espazio libreak handitu beharko lituzke (adb. plazak)** Incrementar los espacios libres de proximidad (ej: plazas) | 3.7 | 3.8 | 3.3 | 2.0 |

### 4.3.1 Ekarpenak partaidetza mekanismoaren arabera

### 4.3.1 Aportaciones por mecanismo de participación

**Digitalki,** espazio publikoaren gaiak adostasun ertain-handia sortu zuen; izan

**Digitalmente**, el tema de espacio público generó un consenso medio-alto, ya que, a

ere, nahiz eta pertsonen % 60k baino gehiagok beharrezkotzat jotzen duen parke handiak, berdeguneak eta hurbileko espazio libreak (plazak, haur-parkeak, etab.) handitu behar direla, lau pertsonatik batek ez du gai horren inguruko iritzirik eman.

pesar de que más del 60% de personas consideró necesario tanto el aumento de parques grandes y zonas verdes, como de espacios libres de proximidad (plazas, parques infantiles, etc.), una de cada cuatro personas no se posiciona respecto a esa cuestión.

Bestalde, egungo espazio publikoek dituzten beharrei dagokienez, aukera guztiak garrantzitsutzat jo baziren ere, landaredia nabarmendu zen, eta ondoren argiztapena eta hiri-altzariak.

Por otro lado, respecto a las necesidades que tienen los espacios públicos actuales, aunque todas las opciones se consideraron importantes, destacó la vegetación, seguido de la iluminación y del mobiliario urbano.

Hala ere, **elkarrizketetan** parte hartu zutenek adierazi zuten Elorriok espazio publiko nahikoak dituela hiri-ingurunean, baina azpimarratuz beharrezkoa dela kalitatea hobetzea eta daudenak mantentzea. Oro har, eremu publikoan zuhaitz gehiago behar direla adierazi zen. Eta, zehazki, **hiri-eremuko behaketan** zein elkarrizketetan behin baino gehiagotan aipatu zen espazio edo plaza estaliren bat behar dela eta eskolen inguruneak seguruagoak izateko beharra dagoela. Bestalde, Ganondoko parkea hobetzeko ere aipatu zen; itzalik, iturririk eta zuhaitzik eza nabarmendu ziren.

Sin embargo, quienes participaron en las **entrevistas** señalaron que Elorrio cuenta con suficientes espacios públicos en el entorno urbano, pero se destacó la necesidad de mejorar la calidad y el mantenimiento de los existentes. En general, se manifestó la necesidad de más arbolado en el espacio público. Y en concreto, tanto en la **observación urbana** como en las entrevistas se mencionó varias veces la necesidad de tener algún espacio o plaza cubierta y hacer más seguros los entornos de las escuelas. Por otro lado, también se señaló mejorar el parque de Ganondo, donde destacó la falta de sombra, fuentes y arbolado.

Azkenik, hirigunerako proposamenak jaso ziren: Laguntza Zentroari ondoko berdegune txikia lagatzea (kanpoko espazio gisa erabili ahal izateko), Balendin Berrio-Otxoa kaleko argiztapena hobetzea, kirola egiteko espazio publiko gehiago prestatzea (gaur egun eskoletako patioak erabiltzen dira) eta eskoletatik gertu espazio libreak hobetzea. Auzoetan, San Agustin eta Mendrakan, espazio publikoen beharra dagoela jaso zen.

Por último, se recogieron propuestas para el casco urbano como: ceder al Centro Asistencial el pequeño espacio verde contiguo (para poder utilizarlo como espacio exterior), aumentar la iluminación en la calle Balendin Berrio-Otxoa, habilitar más espacios públicos para hacer deporte (hoy en día se utilizan los patios de las escuelas) y mejorar los espacios libres cerca de las escuelas. En los barrios, se recogió la necesidad de espacios públicos en San Agustín y Mendraka.

## 4.3.2 Mapa kolaboratiboa

## 4.3.2 Mapa colaborativo




Mapan, batez ere, HAPOk hobetu behar dituen kaleen/plazen guneak jaso ziren: plazak, eskolen inguruko berdegune batzuk eta hiri-inguruneko kaleak. Gainera, aurretik aipatutako gaiak berretsi ziren, hobekuntza-puntu gehien bildu zituen tokietako bat Ganondoko parkea izan baitzen. Nabarmendu zen beste bat Esteibarlanda kaleko parkea izan zen (anbulatorioaren ondoan).

En el mapa, se recogieron principalmente puntos de calles/plazas que el PGOU debe mejorar: las plazas, algunos espacios verdes en el entorno de las escuelas y calles del entorno urbano. Además, se confirmaron las cuestiones comentadas anteriormente, ya que uno de los lugares que más puntos de mejora recogió es el parque de Ganondo. Otro que también destacó fue el parque de la calle Esteibarlanda (junto al ambulatorio).

## 4.4 04. Etxebizitza

Etxebizitzaren gaia da parte-hartzaileen artean interes handiena sortu duena, ingurune naturalarekin eta mugikortasunarekin batera.

Udalerriko etxebizitza- eta biztanleria-estrategia gisa jaso da, alde batetik, neurriz hazteko borondatea eta, bestetik, mantentzeko borondatea, baina inola ere ez da aurreikusten biztanleriaren beherakada.

Horregatik, adostasun-maila handia da HAPOk honakoa aurreikus dezan: etxebizitza berriak, etxebizitza babestuak eta etxebizitza kolektibo mota berriak (co-housing, ekipamendu-bizitokiak, etab.), adostasun handienetik txikienera, hurrenez hurren. Etxebizitza horien tipologiei dagokienez, beheko solairuan merkataritza edo ekipamendua duen etxebizitza kolektiboa nabarmentzen da, eta, ondoren, beheko solairuan etxebizitza duena. Oro har, kezka dago erosteko edo alokatzeko etxebizitzarik ez dagoelako, edo dagoena ez delako eskuragarria edo ez dituelako behar diren funtzioak betetzen tipologia dela eta.

## 4.4 04. Vivienda

El tema de vivienda es de los que más interés genera entre las personas participantes, junto con medio natural y movilidad.

Como estrategia de vivienda y de población del municipio, se recoge, por un lado, la voluntad de un crecimiento moderado y, por otro, de mantenerse, pero en ningún caso se contempla el decrecimiento poblacional.

Por ello, el grado de acuerdo es alto sobre que el PGOU prevea: nuevas viviendas, viviendas protegidas y nuevas formas de vivienda en comunidad (co-housing, alojamientos dotacionales, etc.), de mayor a menor grado de acuerdo respectivamente. En cuanto a las tipologías de estas viviendas, destaca la vivienda colectiva con comercio o equipamiento en planta baja, seguida de la opción con vivienda en planta baja. En general, se recoge preocupación por la falta de viviendas para comprar o para alquilar, y lo que hay no es asequible o no cumple las funciones por falta de tipologías.

| **4 ETXEBIZITZA** VIVIENDA | BATEZ BESTEKOA MEDIA | P. DIG. | PAP. G C. PAP. | ELK. ENTR. |
|---|---|---|---|---|
| **Zure ustez, HAPO berriak...?**<br>¿Crees que el nuevo PGOU debería...? | GUZTIRA/TOTAL 164 | 145 | 7 | 12 |
| 1 **Etxebizitza berriak aurrekusi beharko lituzke.**<br>Prever nuevas viviendas. | 4.2 | 4.1 | 4.1 | 5.0 |
| 2 **Etxebizitza babestu berriak aurrekusi beharko lituzke.**<br>Prever nuevas viviendas protegidas. | 3.8 | 3.8 | 3.7 | 4.0 |
| 3 **Komunitateko etxebizitza-forma berriak jaso beharko lituzke (co-housing, zuzkidura-bizitokiak, etab.)**<br>Contemplar nuevas formas de vivienda en comunidad (co-housing, alojamientos dotacionales, etc). | 3.7 | 3.7 | 3.9 | 4.2 |

### 4.4.1 Ekarpenak partaidetza mekanismoaren arabera

**Online inkestaren** bidez, eta etxebizitza-estrategia desberdinen barruan, % 43k (batez ere 30 urtetik beherakoak) jo zuten aukerarik onena biztanleria mantentzea dela, eta % 31k adierazi zuten neurrizko hazkundea (baimendutako etxebizitza-kopurua agortu gabe). Bestalde, % 23 biztanleriaren hazkundearen alde agertu ziren, baimendutako etxebizitza-kopuru handienarekin. Ia ez da jaso, biztanleriak behera egiteko aukera.

Horri dagokionez, eta irizpide horiei jarraiki, % 75ek beharrezkotzat jo zuen HAPO berriak etxebizitza berriak aurreikustea, eta nabarmentzekoa da % 47k oso ados zegoela gai horrekin.

Etxebizitza berri horiek babestu beharko liratekeen ala ez galdetzean, iritzi aniztasun handiagoa jaso zen, baina % 66k baietz esan zuen.

Etxebizitza komunitatean egiteko modu berriei dagokienez, % 60k uste du HAPOk aintzat hartu behar dituela, baina % 28k (adingabeen ehuneko handiarekin) ez zuen iritzirik eman gai horren inguruan. Etxebizitzen tipologiei dagokienez, % 45ek uste du etxebizitza berriek kolektiboak izan behar direla, beheko solairuan merkataritza eta/edo ekipamenduak dituztelarik, eta % 31k (batez ere 45 urtetik gorakoek) nahiago dute beheko solairuetan etxebizitzak egotea.

Era berean, eta are adostasun handiagoarekin, **elkarrizketetan**, kanal digitalean jasotako joerari eusten zaio. Gainera, bai elkarrizketetan, bai **behaketetan**, etxebizitza berriak eraikitzeaz gain (hiri-ingurunean), hirigune historikoko eraikinen zein landa-auzoetako baserrien birgaitzeak erraztearen

### 4.4.1 Aportaciones por mecanismo de participación

A través de la **encuesta online**, y dentro de las distintas estrategias de vivienda, el 43% (sobre todo menores de 30 años) consideró como mejor opción mantenerse en población y el 31% señaló un crecimiento moderado (sin agotar el máximo permitido de viviendas). Por otro lado, el 23% se posicionó a favor de un crecimiento de población con el máximo número de viviendas permitido. En prácticamente ningún caso, se contempló la opción de decrecer.

En relación con esto y siguiendo estos criterios, el 75% consideró necesario que el nuevo PGOU prevea nuevas viviendas, destacando un 47% que está muy de acuerdo con esta cuestión.

Sobre si estas nuevas viviendas deberían ser protegidas o no, se dio mayor diversidad de opiniones, aunque el 66% consideró que sí.

En cuanto a la las nuevas formas de vivienda en comunidad, el 60% consideró que el PGOU debía contemplarlas, aunque el 28% (con alto porcentaje de menores) no se posicionó respecto a esta cuestión. En relación con las tipologías de las viviendas, el 45% consideró que las nuevas viviendas deben ser colectivas con comercio y/o equipamientos en planta baja, mientras que el 31% (sobre todo mayores de 45 años) prefirió con vivienda en planta baja.

De la misma manera, e incluso con mayor grado de acuerdo, en las **entrevistas** se mantiene la tendencia recogida en el canal digital. Además, tanto en las entrevistas como en las **observaciones**, más allá de construir nuevas viviendas (en el entorno urbano), se manifestó la importancia de facilitar las

garrantzia adierazi zen, babes-araudia berrikustearen alde eta aldaketetan malgutasuna ematearen alde, beharrizan praktiko, irisgarri eta funtzionaletara egokitu ahal izateko. Bi kasuetan, plaka fotovoltaikoak instalatzeko edo beste material isolatzaile batzuk erabiltzeko araudi egokiturik ez egoteak zaildu egiten du eraikin horietako batzuen bizigarritasuna, eta, azkenean, abandonatuta geratzen dira. Era berean, etxebizitzetan energia-eraginkortasuneko neurriak sustatzearen garrantzia ere aipatu zen (eguzki-plaketatik haratago), hala nola aerotermia, eguzki-energia termikoa, isolamenduak, kontsumo-eskakizunak, etab.

rehabilitaciones tanto de los edificios del Casco Histórico como de los caseríos de los barrios rurales, revisando la normativa de protección y facilitando flexibilidad en las modificaciones, para poder adaptarse a las necesidades prácticas, accesibles y funcionales. En ambos casos, la falta de normativa adaptada, por ejemplo, para la instalación de placas fotovoltaicas o utilización de otros materiales aislantes, dificulta la habitabilidad de algunos de estos edificios, quedando finalmente abandonados. De la misma manera, también se señaló la importancia de promover medidas de eficiencia energética en las viviendas (más allá de las placas solares), como por ejemplo la aerotermia, solar-térmica, aislamientos, requisitos de consumo, etc.

Landa-auzoei dagokienez, bai **elkarrizketetan**, bai eremu horretan egindako **behaketan**, txalet berririk ez egitea eskatu zen, izan ere, lo-auzo bihurtzen dituzte, ez dute gizarte-ehunik sortzen eta ez diote erantzuten gazteentzako etxebizitza-premiari. Gainera, kezka dago baserrietako eta etxebizitzetako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategien arteko bizikidetza oztopatzen dutelako. Horretaz gain, estalpe edo txabolak araudiarekin bat erraztasunez eraiki ahal izateko beharra adierazi zen. Eta hainbat neurritako ereduak arautzea proposatu zen, udalerrian mota horretako eraikin guztiak homogeneizatzeko. Era berean, baserriak bi edo hiru etxebizitzetan banatzea ahalbidetzeko planteamendua jaso zen (ez apartamentu bihurtzea), mantentze-kostuak murrizteko eta sarbidea errazteko.

En relación a los barrios rurales, tanto en las **entrevistas** como en la **observación** realizada en ese ámbito, se demandó que se queden sin nuevas construcciones de chalets, ya que los convierten en barrios dormitorio y no generan tejido social ni responden a la necesidad de vivienda para jóvenes. Además, se mostró preocupación porque dificultan la convivencia entre explotaciones agroganaderas de caseríos y viviendas. Además, se manifestó la necesidad de facilitar la construcción reglada de cobertizos o chabolas siguiendo una normativa, incluso se propuso dar modelos de distintas medidas y así homogenizar todo este tipo de edificaciones en el municipio. También, se recogió el planteamiento de posibilitar la transformación de caseríos en dos o tres viviendas, para reducir los costes de mantenimiento y facilitar el acceso.

Bestalde, **kanal guztietan**, etxebizitza eskuragarririk ez dagoelako kezka jaso zen, ez baitago ez alokatzeko ez erosteko.

Por otro lado, en **todos los canales** se recogió preocupación por la falta de viviendas asequibles, ya que no hay ni

Kasu askotan tipologia faltagatik gertatzen da (babestua, alokairuan, 1 edo 2 logela, etab.). Eta honako proposamen hauek ere jaso ziren: obra berriko etxebizitzek kanpoko espazioak (terrazak) eta arkupeak (euritarako) izatea.

para alquilar ni para comprar. En muchos casos se debe a la falta de tipologías (protegida, en alquiler, 1 o 2 habitaciones, etc.). También, se recogieron propuestas como: incorporar espacios exteriores (terrazas) y soportales (para la lluvia) en las viviendas de obra nueva.

### 4.4.2 Mapa kolaboratiboa

### 4.4.2 Mapa colaborativo



Etxebizitza kolektiboak (blokean, pisuetan), beheko solairuan merkataritza eta/edo ekipamenduak dituztenak.
Viviendas colectivas (en bloque, pisos) con comercio y/o equipamientos en planta baja.

Etxebizitza kolektiboak (blokean, pisuetan), beheko solairuan etxebizitza dutenak.
Viviendas colectivas (en bloque, pisos) con vivienda en planta baja.

Co-housing, egoitza komunitarioak, zuzkidura-bizitokiak, etab.
Co-housing, residencias comunitarias, alojamientos dotacionales, etc.

Etxebizitzari buruzko mapan etxebizitza-tipologia bakoitza aurreikusteko tokirik aproposena zein den bildu da. Hala, etxebizitza kolektiboen blokeak nabarmentzen dira, merkataritza edota ekipamenduetatik gertu, igerilekuen ondoan edo Argiñeta eta Ganondo inguruan. Edo etxebizitza beheko solairuan dituztenak, herri osoan banatuta, baita landa-guneetara ere. Neurri txikiagoan, etxebizitza komunitarioen beste tipologia batzuetarako kokapenak ere bildu ziren.

En el mapa de vivienda se señaló donde sería más adecuado prever cada tipología de vivienda. Así, destacaron los bloques de vivienda colectiva, con comercio y/o equipamientos junto a las piscinas o en la zona de Argiñeta y Ganondo, o con vivienda en planta baja, más repartidas por todo el pueblo, incluso hacia los núcleos rurales. En menor medida, se señalaron posibles ubicaciones para otras tipologías de vivienda comunitarias.

## 4.5 05. Jarduera ekonomikoa

Jarduera ekonomikoaren gaiak interes ertain-txikia sortu du parte-hartzaileen artean, online inkestan parte-hartzea nabarmen jaisten baita. Horren arrazoia da adingabeen parte-hartzeak behera egin duela gai honetan. Hala ere, elkarrizketetan ekarpen kualitatibo eta esanguratsu ugari jaso ziren.

Jarduera ekonomikoetarako, HAPOk jarraitu beharko lukeen estrategiari dagokionez, nabarmentzekoa da adostasun-maila handia dagoela tokiko enplegua mantentzearen eta bultzatzearen, ekintzailetza bultzatzearen eta lehen sektorearekin lotutako jarduerak lehenestearen alde, mekanismo guztietan.

Aldiz, egungo egoeraren diagnostikoari dagokionez, iritzi-aniztasun handiagoa jaso da, eta ez dago adostasun argirik lan-eskaintza nahikoa eta askotarikoa den, eta merkataritza eta hurbileko zerbitzuak nahikoak diren galdetzean. Bi kasuetan, hala ere, orokorrean falta direla jaso da.

## 4.5 05. Actividad económica

El tema de actividad económica genera interés medio-bajo entre las personas participantes, ya que en la encuesta online la participación baja considerablemente. Esto se explica por el descenso de participación de las personas menores de edad en este tema. Sin embargo, en las entrevistas, se recoge una amplia cantidad de aportaciones cualitativas muy relevantes.

Sobre la estrategia de actividad económica que debería seguir el PGOU, destaca el alto grado de acuerdo en todos los mecanismos sobre: mantener e impulsar el empleo local, impulsar el emprendimiento y priorizar las actividades relacionadas con el primer sector.

En cambio, en relación al diagnóstico de la situación actual, se recoge mayor diversidad de opiniones, no habiendo un consenso claro sobre si la oferta de trabajo es suficiente y diversa, y si el comercio y los servicios de proximidad es suficiente. En ambos casos, no obstante, la tendencia es más cercana a la falta de dichas cuestiones.

| 5 JARDUERA EKONOMIKOA<br>ACTIVIDAD ECONÓMICA | BATEZ BESTEKOA MEDIA | P. DIG. | PAP. G C. PAP. | ELK. ENTR. |
|---|---|---|---|---|
| **Zure ustez, HAPO berriak...?**<br>¿Crees que el nuevo PGOU debería...? | GUZTIRA/TOTAL 102 | 83 | 7 | 12 |
| 1 **Tokiko enplegua mantendu eta bultzatu beharko luke.**<br>Mantener e impulsar el empleo local. | 4.2 | 4.1 | 4.9 | 5.0 |
| 2 **Ekintzailetza bultzatu beharko luke (topaguneak, berrikuntza, koworkinga...)**<br>Impulsar el emprendimiento (espacios de innovación, encuentro, coworking...) | 4.1 | 4.1 | 4.6 | 4.0 |
| 3 **Lehentasuna eman beharko lieke lehen sektorearekin lotutako jarduerei.**<br>Priorizar las actividades relacionadas con el primer sector | 4.0 | 3.9 | 4.7 | 4.3 |
| 4 **Lan-eskaintza nahikoa eta askotarikoa eskaintzen da?**<br>¿Hay una oferta de trabajo suficiente y diversa? | 2.7 | 2.7 | 1.9 | 3.3 |
| 5 **Hurbileko merkataritza eta zerbitzu nahikoa dago?**<br>¿Hay suficiente comercio y servicios de proximidad? | 2.7 | 2.8 | 2.7 | 2.0 |

### 4.5.1 Ekarpenak partaidetza mekanismoaren arabera

Lehen azaldu bezala, jarduera ekonomikoaren gaiak **digitalki** 18 urtetik beherakoen ekarpen gutxi jaso zituen. Gainera, oro har, adostasun-mailari dagokionez, erantzunen ehuneko handi bat tarteko aukeran bildu zen, agian ez gaiarekiko ezjakintasuna dela eta edo gaiekin harreman txikia dutelako. Horren ondorioz, adin-talde honen parte-hartze proportzio handia dela eta, gai orokorren emaitzak baldintzatuta daude. Hala ere, elkarrizketetan (horietako batzuk udalerriko enpresa nagusiekin) zein behaketetan, HAPOrako ekarpen esanguratsuak jaso ziren.

Horrela, jarduera ekonomikoaren egungo egoeraren diagnostikoari dagokionez, **digitalki** askotariko iritziak jaso ziren, kasu batzuetan apur bat polarizatuak. Lan-eskaintza nahikoa eta askotarikoa den galdetzean, % 39k ezetz esan zuen, eta % 22k baietz; gainerakoek, berriz, ez zuten iritzirik eman. Antzekoa gertatzen da merkataritza eta hurbileko zerbitzuen eskaintzarekin: % 38k uste du ez dela nahikoa eta % 23k nahikoa dela.

Hala ere, adostasun-mailak gora egin zuen HAPO berriak bultzatu beharko lukeenarekin lotutako gaietan: tokiko enplegua, hirugarren sektoreko jarduera eta industria garbia mantenduz eta bultzatuz ( % 74), ekintzailetza berrikuntza-espazioekin, coworking-arekin, etab. ( % 72) eta lehen sektorea ( % 69).

Horregatik, Elorrion zein sektore bultzatu beharko litzatekeen galdetzean, parte hartu zuten guztiek adierazi zuten (aukera bat baino gehiago hauta zitekeen), industria garbia eta merkataritza bultzatu behar direla. Eta bigarrenez, zerbitzuak eta nekazaritza. Horregatik, adierazi zen

### 4.5.1 Aportaciones por mecanismo de participación

Como se explica anteriormente, el tema de actividad económica recogió **digitalmente** menos aportaciones de personas menores de 18 años. Además, en general, un porcentaje alto de sus respuestas sobre el grado de acuerdo se aglutinaron en la opción intermedia, quizás por desconocimiento o poca relación con las cuestiones. Esto provoca que, dada la alta proporción de este grupo de edad, las respuestas a las cuestiones generales queden determinadas por esto. Sin embargo, tanto en las entrevistas (algunas de ellas con las principales empresas del municipio) como en las observaciones, se recogieron aportaciones relevantes para el PGOU.

